# Aritzkaria

50 Iñigo Aritza Ikastola

2021-2022 | 27. zenbakia



**HIZKUNTZA PROIEKTUA**
Helena Baraibarri elkarrizketa
>> 5-7. or.

**KUKU, EMOZIOAK LANTZEN**
HH-n emozioak ahozkotasunaren bitartez lantzen
>> 8-9. or.

**ATZOTIK DA GAUR; GAURTIK DA BIHAR**
Iñigo Aritza ikastolako 50. urtemuga
>> 18-19. or.

# ZUZENDARITZA

Ikastolen mugimendua hasi zenetik, momentu gazi gozoak izan ditugu beti gure eskuartean. Ez da berria eraikitze bidean honelako gorabeherak izatea. Baina proiektu handi honen atzean, ehunka ero gaude egunero ilusioz ideia nagusi bati heltzen diogunak: etorkizuneko gizartea eraikiko duten gure ikasleak Euskal Curriculum propio batean oinarritutako hezkuntza sisteman heztea. Eta ilusio horri gogotsu eutsiz, pauso txikiez osatzen dugu 60ko hamarkadan hasitako ibilbidea gau eta egun.

Pauso txiki diot, askotan egunerokotasunean horrela dirudielako baina begirada atzera botatzea besterik ez dugu nondik abiatu ginen eta noraino iritsi garen ikusteko. Sekulan ez da txikia izango handi egiten gaituen horrek. Momentu honetan eskuartean dugun hau batzuk imajina ezin zuten errealitate bat da, elkarlanean, ikastolen sarea osatzen dugun 111 ikastolen eta hauek osatzen duten komunitateek aurrera eraman duguna.

Baina ametsek mugarik ba ote dute? Nahikoa al da lortu duguna? Hezkuntza munduan murgilduta gaudenok argi dugu beti dagoela hobekuntzarako tartea, hortaz, beti dago aurrera pausoak emateko aukera. Hezkuntzan bizi dugun une honetan, esparru desberdinetatik eratortzen zaizkigun milaka erronka ditugu. Eta orain arte egin dugun bezala, elkarlanean hauei aurre egingo diegu, gogoz eta ilusioz gure ametsetan irudikatzen dugun hezkuntza eredu hori errealitate bilakatu dadin.

Desde que comenzamos el movimiento de las ikastolas, siempre hemos tenido momentos agridulces. No es nuevo que un proceso de construcción tenga altibajos de este tipo, pero detrás de este gran proyecto, cada día estamos cientos de locos que con ilusión abordamos una idea central: educar a nuestro alumnado con un sistema educativo basado en un Curriculum Vasco propio ya que son quienes construirán la sociedad del futuro. Manteniendo con entusiasmo esta ilusión, completamos día y noche con pequeños pasos la trayectoria iniciada en los años 60.

Digo pequeños pasos porque muchas veces así lo parece en el día a día, pero sólo tenemos que echar la vista atrás para ver de dónde partimos y a dónde hemos llegado. Nunca será pequeño lo que nos hace grandes. En este momento, lo que tenemos entre manos es una realidad que algunas personas no podían ni imaginar; una realidad que hemos conseguido en colaboración las 111 ikastolas que formamos la red de ikastolas así como las comunidades que las componen.

¿Pero acaso tienen límite los sueños? ¿Es suficiente lo que hemos conseguido? Todas las personas inmersas en el mundo educativo tenemos claro que siempre hay margen de mejora, por lo que siempre es posible avanzar. En el mundo de la educación, en este momento, tenemos miles de retos que se derivan de diferentes ámbitos. Y, como hemos venido haciendo hasta ahora, de forma conjunta los afrontaremos para que con ganas e ilusión ese modelo educativo que imaginamos en nuestros sueños se convierta en realidad.



**Argitaratzailea:** Iñigo Aritza Ikastola
**Diseinua eta maketazioa:** GK
**Testuak, itzulpenak, argazkiak eta koordinazioa:** Iñigo Aritza Ikastola

**IÑIGO ARITZA IKASTOLA**
San Pedroko bidea, 16 | 31800 Altsasu
ikastola@inigoaritza. eus
**Idazkaritza ordutegia:** 7:30-13:00 / 14:00-17:30

ZIORDIKO UDALA

URDIAINGO UDALA




# JUNTA

Ikastolen ezaugarri nagusietako bat herritik herriarentzat sortua izatearena da eta honen isla da gure izaera juridikoa den kooperatibismoa. Baina Ikastolen kasuan kontzeptu juridikotik haratago doa hau. Pertsonen arteko lankidetza sustatzen duen marko honek egunerokotasunean bere bidea egiten du, ikastolako familiek ordezkatzen dituen zuzendaritza batzordea baita ikastolaren funtzionamendu orokorrean lagundu, erabaki eta parte hartzen duena.

Ikastolak hiru adar nagusi ditu elkarlanean modu konstante batean aritzen dena: ikasleak, familiak eta langileak. Helburu amankomuna dugu proiektu honetako kide guztiok: gure ikasleak, gure seme-alabak, Iñigo Aritza Ikastolako balioetan heztea: euskara eta euskal kulturan heztea, gizarte ireki baten partaideak izatea, herritarra izatea. Eta guzti honen eredurik onena gu geu gara.

Modu kolektibo batean arituz, lankidetza ardatz izanik, gure komunitatearen helburuak lortzeko bideak eraikitzen jarraituko dugu, azken bost hamarkadatan egin dugun bezala. Elkarrekin ekinez, gure Iñigo Aritza Ikastolaren bideak gutxienez beste 50 urteko ibilbidea egingo duela ziur gaude.

Una de las principales señas de identidad de las ikastolas es la de ser creadas por y para el pueblo y su naturaleza jurídica de cooperativa. En el caso de las Ikastolas esto va más allá del mero concepto jurídico. Este marco que fomenta la colaboración entre las personas hace su camino en el día a día, ya que la junta directiva que representa a las familias de la ikastola es la que colabora, decide y participa en el funcionamiento general de la ikastola.

La Ikastola cuenta con tres ejes principales que colaboran de forma constante: estudiantes, familias y personas trabajadoras. Todos los miembros de este proyecto tenemos un objetivo común: que nuestro alumnado, nuestros/as hijos/as, sea educado en los valores de la Ikastola Iñigo Aritza: crecer en euskera y rodeados de la cultura vasca, formar parte de una sociedad abierta y de la propia actividad del pueblo. Y el mejor ejemplo de todo esto somos nosotros/as.

Actuando de forma colectiva y centrándonos en la cooperación, seguiremos construyendo vías para alcanzar los objetivos de nuestra comunidad, como hemos hecho en las últimas cinco décadas. Estamos seguros de que, haciéndolo de forma conjunta, el camino de nuestra Ikastola Iñigo Aritza recorrerá al menos otros 50 años.

























# LANGILEAK

**ZUZENDARITZA**
Leire Baztarrika Sanz

**ORIENTATZAILEA**
Isabel Salegui

**ETAPEN ZUZENDARIAK**
Amagoia Agirre (HH)
Bakartxo Presa (LH)
Sonia Lizarraga (DBH)

**HAUR HEZKUNTZA**
Amagoia Agirre
Edurne González
Irati Flores
Naroa Goikoetxea
Nerea Lapuente
Olatz Álvarez

**LEHEN HEZKUNTZA**
Ainara Aizpurua
Bakartxo Presa
Edurne Amillano
Ekhi Etxeberria
Garazi Urrestarazu
Garbiñe Arguelles
Jon Lagos
June Bengoetxea
Maitane Altzelai
Nahikari González
Pili Olasagarre

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**
Amaia Orbegozo
Asier Álvarez de Eulate
Erkuden Flores
Idurre Arrieta
Jon Lagos
Manu Gómez
Mikel Agirre
Nahikari González
Olatz Unanue
Pili Olasagarre
Sonia Lizarraga

**ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA**
Amaia Zuriarrain
Arrate Argüelles
Artzanegi Martin
Edurne Martínez

**ZAINTZAILEAK**
Irati Ayerbe
Mireia Ormazabal
Saioa Lizarraga

**ADMINISTRAZIOA**
Aitziber Etxaiz
Alaitz Olano

**GARBITZAILEAK**
Laura Dueñas
Laura La Torre
Pili Rellán
Tere Armendariz

**GARRAIOA**
Amaia Armendariz
Edurne Otxoa

**JANTOKIA**
Esther Larrion

**TXIOKA**
Beatriz Mayo
(koordinatzailea)
Jasone Mujika
Maitane Agirre
Uxue Ondarra

**TXIOKAKO GARBITZAILEAK**
Dolo Fdez. de Arroiabe
Raquel Iriarte
Sara Zufiaurre

# HIZKUNTZ PROIEKTUA
# IKASTOLEN ETA IÑIGO ARITZA IKASTOLAREN ERDIGUNEAN

## HELENA BARAIBARRI ELKARRIZKETA



**Azkenaldian komunikabideetan entzuten da ikasleen euskararen ezagutzak, kalitateak eta erabilerak behera egin dutela...**
Ikastolak aitzindaria izan gara metodologietan... beti, eta baita gai honetan ere. Hala, Hizkuntza Proiektua duela 20 urte sortu zen. Emaitza onak eman zituen eta jarraitzen du ematen, baina gaur egungo adierazleek erakusten digute **gaia erdigunean jartzeko beharra dagoela.**

**Ekiteko ordua da, beraz...**
Bai, itxaropenez ekiteko ordua da, eta horretarako Hizkuntza Proiektua tresna egokia da, Ikastolen hizkuntzen ezagutzarekin eta erabilerarekin zerikusia duten alderdi guztiei kohesioa eta koherentzia emateko aukera ematen duen proiektua baita; baina **momentuko beharrei erantzuteko Hizkuntza Proiektua berrindartzen ari gara.**

Aliatuak egitea garrantzitsua zaigu eta gizarte aktibazioa eta aktibazio instituzionala bultzatzeko eragileon arteko elkarlana behar-beharrezkoak ditugu, baina **geuk ere ekin beharra diogu eta ekingo diogu geure esparrutik dezakegun horri tinkotasunez helduz.** Horretarako, Hizkuntz Proiektua ikastolaren erdigunean jarri beharra daukagu, ; **guztion arteko elkarlana bilatzen duen** eta komunitate osoari eragiten dion plangintza delako.

**Zer esan nahi da Hizkuntza Proiektua berrindartu behar dela esatearekin? Zeintzuk dira bere oinarriak?**
**Hizkuntza Proiektuak Ikastolan hizkuntzen irakaskuntzarekin edota erabilerarekin harremana duten eremu eta hezkuntza komunitatea osatzen duten subjektu guztiak hartzen ditu bere barnean.** Eremu instituzionala da horietako bat. Eremu horrek gurasoei begira jartzeko aukera ere ematen digu. **Ikaslearen irteera profilera iristeko, ezinbestekoa zaigu familiari zuzendutako diskurtsoa egitea eta esku-hartze sistematizatua bideratzea, batik bat Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.**

Instituzionalean eragiteaz gain, eremu pedagogikoan ere eragiten du Hizkuntz Proiektuak: gela barruko jardunari dagokiona, nahiz gelaz kanpokoari dagokiona. Gela barrukoari dagokionez, Ikastolen Elkartean Hizkuntzen Trataera Integralaren ikuspuntua lantzen ari da. Ildo horretan, Iñigo Aritzan duela hiru ikasturtetatik abian dugu HUHEZIrekin batera daramagun Eragin proiektua.

Gelaz kanpokoa ere, hezkuntza eremua eta euskararen ezagutzan eta erabileran eragiten duen espazioa izaki, betidanik antolatu dugun espazioa izan da. Dena den, momentu honetan Zirimola elkartearekin (Ikastolen Elkarteko aisialdi taldea) batera eskolaz kanpokoa berraztertze eta berrindartzeari ekingo diogu aisiako une eta guneetan gure hizkuntza indartzeko eta ikasleen arteko sozializazioan euskara finkatzen laguntzeko.

Beraz, Ikastolen Elkarteak jada, hartu du Hizkuntz Proiektua erdigunean jartzearen erabakia eta bide horretan martxan jarri ditu datozen urteetako etapa guztietako formazioak eta lan ildoak.

**Ikastolak murgilduta dauden berrikuntza pedagogokoaren baitan, non kokatzen da Hizkuntz Proiektua?**
**Guk herritar euskaldun,**

**euskaltzale eleaniztun konprometituak hezi nahi ditugu. Berrikuntza pedagogikoak galbahe horretatik pasatzea oso garrantzitsua da.** Ez baita gauza bera eleaniztuna izatea hizkuntza hegemonikoak baino ez diren eremuetan, edo eleaniztuna izatea hizkuntza gutxitu bat dagoen eremuetan. Eta gure kasua bigarren hori da. Horregatik, gainontzeko hizkuntzak gutxietsi gabe, euskararen ezagutza eta erabilera indartze aldera indartu dezakegunaz eta daukagun premiaz ari gara.

Gurea murgiltze eredua dugu, euskarazko murgiltze eredua. Bizi dugun gizartea euskararen murgiltzea eman dadin, **ezinbestekoa dugu euskaren ezagutza eta erabilerarekiko indartze neurriak eta irizpide jakinak komunitate osoan baliatzea eta komunitate osoa ikuspegi horretatik aktibatzea.**

**Ikastolen aldizkaritik moldatua**

Gaiaren garrantzia aintzat hartuta, azaroaren 21ean Elena Baraibar bera izan genuen klaustroan eta kezka eta erronka haueitaz guztiez aritzeko, Iñigo Aritza Ikastolan momentu honetan ere Hizkuntz Proiektua berraztertzen ari baikara, datozen urteetako plan estrategikora pasatzeko. Gure ikastolak 50. urte luze hauetan hizkuntza beti izan du erdigunean, baina gizartearen beharrei erantzuna ematekoune erabakior honetan, erabaki irmoak hartzen ari gara Ikastolen Elkarteak eta guk geuk egindako hausnarketa sakon horietatik abiatuta. Ekitearen paradigma horretatik abiatuta, Hizkuntza proiektua gure komunitatean zabaltzeaz gain (familia, langile eta ikasleak), Hizkuntzaren Trataera Integralaren ikuspuntu hori gure proiektuetan integratzen ari gara.































# EL PROYECTO LINGÜÍSTICO EN EL CENTRO DE LAS IKASTOLAS E IÑIGO ARITZA IKASTOLA

## ENTREVISTA A HELENA BARAIBAR



El pasado 21 de noviembre recibimos a Helena Baraibar en el claustro para hablar de todas estas inquietudes y retos, ya que en la Ikastola Iñigo Aritza seguimos revisando el Proyecto Lingüístico para pasar al plan estratégico de los próximos años. Nuestra ikastola ha tenido siempre el euskara como eje principal, pero en este momento decisivo para dar respuesta a las necesidades de la sociedad, estamos sembrando el camino partiendo de este paradigma de actuar. Además de difundir el proyecto Lingüístico en nuestra comunidad (familias, trabajadores y alumnado), estamos también integrando en nuestros proyectos esta visión del Tratamiento Integral de la Lengua.

**Últimamente se escucha en los medios de comunicación que el conocimiento, la calidad y el uso del euskera de los alumnos han disminuido...**

Las ikastolas hemos sido siempre pioneras. El Proyecto Lingüístico nació hace 20 años. Dio buenos resultados y los sigue dando, pero los indicadores actuales demuestran la necesidad de centrar el tema.

**Es hora de actuar...**

Sí, es hora de actuar, y para ello el Proyecto Lingüístico es una herramienta adecuada, ya que permite dotar de cohesión y coherencia todo lo relacionado con el conocimiento y uso de las lenguas de las Ikastolas. Pero para dar respuesta a las necesidades del momento es necesario fortalecerlo.

Es importante que nos aliemos y colaboremos con distintos agentes para impulsar la activación social e institucional, pero nosotros/as también tenemos que actuar y abordar con firmeza lo que nos corresponda. Para ello hay que situar el Proyecto Lingüístico en el centro de la ikastola buscando la colaboración entre todos/as.

**¿Qué significa decir que hay que reactivar el Proyecto Lingüístico? ¿Cuáles son sus bases?**

Éste abarca todos los ámbitos y sujetos que forman la comunidad educativa relacionados con la enseñanza y/o uso de las lenguas dentro de la Ikastola. Uno de ellos es el ámbito institucional. Este campo nos permite también mirar a las familias. Para llegar al perfil de salida del alumno/a es necesario crear un discurso y una intervención sistematizada dirigida a éstas, sobre todo en Educación Infantil y Primaria.

Además de incidir en el ámbito institucional, el Proyecto Lingüístico incide también en el pedagógico: tanto dentro del aula como fuera de ella. En lo que respecta al ámbito del aula, desde Federación de Ikastolas se está trabajando el enfoque del Tratamiento Integral de las Lenguas, y en Iñigo Aritza, concretamente, junto la Universidad de Mondragon, se trabaja el proyecto Eragin para incidir desde esa perspectiva.

El espacio fuera del aula, al ser también un espacio educativo, influye en el conocimiento y uso del euskera, y por eso, lo hemos organizado siempre. No obstante, en este momento, junto con la asociación Zirimola vamos a revisar y reforzar los momentos y espacios de ocio para consolidar el euskera en la socialización del alumnado.

Por lo tanto, la Federación ya ha puesto el Proyecto Lingüístico en el centro diseñando las formaciones y líneas de trabajo de todas las etapas cara a los próximos años.

**Dentro de la innovación pedagógica en la que están inmersas las ikastolas, ¿dónde se enmarca el Proyecto Lingüístico?**

Nosotros queremos formar ciudadanos euskaldunes y euskaltzales plurilingües comprometidos. Para ello es muy importante que las innovaciones pedagógicas lo tengan en cuenta. Porque no es lo mismo ser multilingüe en ámbitos que sólo son lenguas hegemónicas, que ser multilingüe en los que hay una lengua minorizada. Y nuestro caso es este segundo. Por eso, sin menospreciar el resto de lenguas, hablamos de lo que podemos y necesitamos para reforzar el conocimiento y el uso del euskera.

Nuestro modelo es el de inmersión en euskera. Para que la sociedad en la que vivimos se implique en nuestra lengua, es imprescindible que se apliquen medidas de refuerzo y que se adopten criterios concretos en toda la comunidad y que ésta se active.

**Adaptado de la revista de las ikastolas**

# KUKU, EMOZIOAK LANTZEN



Urte luzeetan Haur Hezkuntzako irakasleek materialak hautatzen eta aztertzen, proposamenak pentsatzen eta diseinatzen lan handia egin dute, beti ere haurrentzako aukerak zabalagoak eta aberatsagoak izan daitezen. Gure ikastolako ezaugarri bat izan da, alegia, haurren garapenean lagungarriak izango diren tresnak sortzea.

70ko hamarkadan hainbat herritarrek, haien seme-alabei beste heziketa bat emateko asmoz eskola eredu ezberdin bat eraiki zuten: ikastola. Berrikuntza eta euskara zen helburua eta horretan jardun da Iñigo Aritza ikastola gaur eguneraino.

Gure ikastolaren nortasuna mantentzea eta pedagogia berritzaileak txertatzea beharrezkoa da haurren garapen integrala lortzen laguntzeko. Urteetan zehar, eraikitako bide orrian, euskarazko ipuin klasikoak, Urtxintxako proiektua eta Kabiren egitasmoa ezagutu ditugu. Helburu berarekin datorkigu KUKU emozio programa.

Oinarrizko emozioak lantzeko programa da KUKU, norbere emozioak ezagutzeko, erregulatzeko eta besteenak hobeto ulertzen laguntzeko, ahozkotasuna oinarri hartuta.

Poza, haserrea, beldurra, tristura, nazka eta sorpresa dira oinarrizko sei emozioak. Emozioen lanketarako berariazko elementuak sortu dira, norberaren bizipenetatik abiatuta, esparru anitzetan erabilgarri direnak: eskolan, familia artean edota haurrak bere kasa jolasteko.

KUKU programarekin hasteko gogotsu gaude. Gainera, programa hau Haur Hezkuntzako bi zikloetan landuko den programa izango da, hots, nagusien gelan (2 urte) hasi eta bost urteko gelara luzatuko den egitasmo jarraitua. Jakinik, familia eta ikastola elkarren eskutik doazela, familia eskolak burutuko dira ikasturtean zehar, familien prestakuntza beharrezkoa eta ezinbestekoa baita haurraren hezkuntza prozesuan.

OGI BERRI BUJANDA
KALE NAGUSIA 40 - OLAZTI

Clinica Dental
Dr. Paula Berreteaga
Odontóloga
Colegiada nº20, 001, 006
948 563 107 · 619 202 717
C/ Intxaurrondo N. 4 - bajo
31800 ALSASUA

Distribuciones Urbasa, S.L.
T. 948 467 783 / 670 318 658
F. 948 46 77 83
Urbasako Etorbidea 17
31809 OLAZTI Nafarroa

Arkatz
Liburu-denda
Librería
san juan kalea 19 31800 ALTSASU
TEL/FAX: 948 56 31 56
arkatz@arkatzliburudenda.com

Asesoría · Aholkularitza
AG GOIKOETXEA
948 563 352
San Juan, 2 · 31800 Altsasu
asesoria@asesoriagoikoetxea.es

ASPILAN
Xurgapen zentralizatua eta aireztapena
948 468 109 | Tejeria kalea, 31 | 31809 Ziordia
www.aspilan.com

BERRI BIKES
Bizikletak
Osagarriak
Akzesorioak
Garzia Ximenez • Altsasu
948 469 188 berribikes@gmail.com

BV
edari hotzak
edari beroak
snacks
Betelu Vending S.L.
606 880417 BETELU

biohaus GOIERRI S.L.
Ibarrea industr. z/g ALTSASU
T.: 948 564 001
F.: 948 564 230
www.biohaus.es
biohaus@biohaus.es
ERAIKUNTZARAKO MATERIAL EKOLOGIKOAK
Naturarekin bat eraiki

# KUKU, TRABAJANDO LAS EMOCIONES



Durante muchos años el profesorado de Educación Infantil ha trabajado mucho en la selección y análisis de materiales, en la reflexión y en el diseño de propuestas, para que las posibilidades de los niños sean más amplias y ricas. Una de las características de nuestra ikastola ha sido la creación de herramientas que ayuden al desarrollo de los niños.

En la década de los 70 personas comprometidas con nuestro pueblo, construyeron un modelo de escuela diferente, la ikastola, con el fin de dar una nueva educación a sus hijos e hijas. El objetivo era la innovación y el euskera, y en ello se ha trabajado hasta hoy en Iñigo Aritza ikastola.

El mantenimiento de la identidad de nuestra ikastola y la incorporación de nuevas pedagogías innovadoras es necesario para contribuir al desarrollo integral de los niños. Durante años, en la hoja de ruta construida, hemos conocido cuentos clásicos en euskera, el proyecto de Urtxintxa y el de Kabi. KUKU nace con el mismo objetivo.

KUKU es un programa para trabajar las emociones básicas para conocer las propias emociones, regularlas y ayudar al alumnado a comprender mejor las de los demás, trabajándolas desde una manera oral.

La alegría, el enfado, el miedo, la tristeza, el asco y la sorpresa son las seis emociones básicas. Se han creado elementos específicos para el trabajo de las emociones, que partiendo de las propias vivencias, son útiles en diferentes ámbitos: la escuela, la familia o el juego por cuenta propia.

Estamos decididos a empezar con el programa KUKU. Además, este programa se desarrollará en los dos ciclos de Educación Infantil, es decir, un programa continuo que comenzará en el aula de los mayores (2 años) y se prolongará hasta los cinco años. Conscientes de que la familia y la ikastola van de la mano, a lo largo del curso se realizará formación para las familias, la cual es necesaria e imprescindible en el proceso educativo del niño/a.

























# HARIZTIA, 50 URTE IRAKASTEN

## 50 urte pasa dira Iñigo Aritza sortu zenetik

Euri pixka bat egin du horrez geroztik. Irakasle batzuk joan, berriak etorri, ikasleak joan eta guraso bueltatu, guraso joan eta aiton-amon etorri... bizitzaren zikloa.

Baina bada aldatu ez den zerbait urte hauetan. Hau, gure hariztia da!!!

Ikastola inguratzen duen patio eder hori.

Bitxia da, nola bertan, urtez urte sortzen diren jokoak behin eta berriz errepikatzen diren.

Gure haritzak, ikasleen txabola, denda, babestoki... izan dira eta dira.

Honek, hainbat gauza irakatsi dizkie bertan jolastu eta jolasten diren ikasle guztiei.

Alde batetik, motrizitatea eta oreka lantzen laguntzen du, zuhaitzean gora eta behera ibiltzeak, saltoak goitik behera, zintzilikatzea. . .

Ai ene! Zuhaitz horien adarrek kontatuko balute bertan hitz egin izan diren















sekretu eta txutxu-mutxu guztiak!!

Bestalde, haritzek matematika lantzeko aukera ematen dute ere.

Ezkurrak, sortutako denden txanponak izan dira eta dira. Sekulako negozio eta salerosketak egiten dira.

Txabolak egiteko, beharrezko tamaina duten adarrak aukeratu, luzera kalkulatu, zenbaten artean eraman behar den...

Aldapan sortzen diren errekatxoetako presak egiteko, material egokia bilatu, non moztu ura, nola...

Guzti honek, elkar bizitza arauak errespetatzen erakusten digu.

Txabola materialaren lapurretak, ezkurren eta elur bolen borrokak, gelen edo taldeen arteko haserreak sortzen ditu. Hau bideratu ahal izateko, adiskidetasuna, elkarren arteko laguntza, haserrealdiak konpontzeko hitz egiten, irakasten digu.

Sormenerako ere garrantzitsua, hariztiak ematen dizkigun material guztiak.

Bertako materialarekin (hostoak, makiltxoak, ezkurrak...) ikasleek sortzen dituzten ekoizpenak.

Eta nola ez, gure ingurunearen zaintza eta ezagutza. Zuhaitz, landare, ziza, xomorro eta hegaztien ezagutza.

Gure ingurunea zaindu eta sortzen ditugun zaborrak bildu eta birziklatu

Eta azkenik, naturak berak egiten dizkigun opariak, erbiak, orkatzak, artaldeak, urtxintxak...

Gela barruan asko ikasten da, baina argi dago gure ingurune paregabe honek ere irakasteko gauza asko dituela.

Iñigo Aritza ikastolako hariztia, 50 urte irakasten!!!!!

# 50 AÑOS HAN PASADO DESDE QUE IÑIGO ARITZA SE FUNDÓ

Ha habido muchos cambios desde entonces, cambios que la vida ha ido marcando. Pero lo que no ha cambiado en todos estos años es: ¡¡nuestro robledal!!



El patio que rodea nuestra ikastola, es una parte importante del centro gracias al cual el alumnado ha aprendido mucho jugando en él: motricidad y equilibrio trepando por los árboles, matemáticas a través de las compras con las monedas creadas con bellotas, normas de convivencia gracias a la oportunidad que han generado los conflictos de cabañas, imaginación y creación con los diferentes materiales que encontramos en el entorno, el cuidado del entorno reciclando, etc.

Dentro del aula se aprende, pero es indiscutible que el entorno que nos rodea tiene muchas cosas para que sigamos aprendiendo.

¡¡El robledal de Iñigo Aritza ha enseñado durante 50 años!!

ALFA54
INMOBILIARIA
948562711 _ 679308443
WWW.ALFAINMO.COM
SAN JUAN 54. ALTSASU

ileapaindegia
karmen
URDAIN
948 562 665

KATALITURRI
SUTARAKO EGURRA SALGAI
VENTA DE LEÑA
650 831 813 · 948 562 388
katalituri@hotmail.com
Pol. Ind. Isasia, Parcela A · 31800 ALSASUA

jai giro hoberena
KOXKA
TABERNA
948 562 953
KOXKA

IORTIA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK · ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

IRANTZU GONZÁLEZ AZPIROZ
DANTZA ESKOLA
San Juan kalea, 80 | 31800 Altsasu

Hotela
Taberna Jatetxea Erretegia
IRU-BIDE
Aparkaleku zabala
Gazteizko etorbidea, 3 ALTSASU
Tel. 948-468 876 Fax.948-467 006

ITURTRIKI
FONTANERÍA // CALEFACCIÓN // GAS
ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
Iván Sobredo
627 486 844
iturtriki@hotmail.com
Altsasu
Aurrekontua konpromisorik gabe

iulene
Erkuden kalea 4
948 562 880 | 686 217 781

cortina stor
izara
ETXERAKO OHIALAK ETA OSAGARRIAK
TEXTILES Y COMPLEMENTOS DE HOGAR
Pilotajoko zehb., 8 Altsasu 948467304
www.cortinasizara.com

izarte
LORATEGI ZERBITZU INTEGRALA
670 063 093
Pol. Isasia 31800 ALTSASU
jardineria.izarte@gmail.com

fuel
IZELAI FUEL, SL
Avda. Pamplona, 18
31800 ALSASUA (Na)


HH 4A


HH 4B


HH 5


LH 1


LH 2


LH 3


LH 4A


LH 4B

Barne diseinua · Erreformak
Altzariak · Atsedena
Arkitektura Teknikoa · Etxe Pasiboak

Beheko Benta 5
31800 Altsasu
948 563 308
www.mk2-santacruz.com
info@mk2-santacruz.com

SANTA CRUZ
MK2 ARKITEKTURA

taldea
ASESORIA
PATXI PERAL
NÓMINAS · CONTRATOS · ESCRITURAS
ASESORÍA TALDEA AHOLKULARITZA
646 732 354 · 948 469 080
asistenciataldea@gmail.com
Garcia Ximenez, 16 · 2E · 31800 Altsasu

Txalaparta
Taberna
Zumalakarregi enparantza ALTSASU
948 46 70 70

LH 5A



LH 5B



LH 6



DBH 1



DBH 2



DBH 3



CBU





TG













# IKASTOLAK ETA IÑIGO ARITZA, MATERIALGINTZAN AITZINDARI




Gure ikastolak 50 urte bete dituen honetan, egindako ibilbidea hainbat modutara azter liteke. Kasu honetan gure erdigune eta ardatz diren ikasleen materialgintzaren inguruko gogoeta eginen dugu. Izan ere, horretan ere ikastolak aitzindari izan ziren eta orain ere, badira.

1971. urtea izan zen gure ikastolaren sorrera urtea, garai hartan estatuak kudeaturiko edo fraideek eta monjek kudeaturiko eskola zegoen, ikastolak eskolaren kontzepzioa ez ezik, pedagogian ere ikastolak berrikuntza ekarri zuen Euskal Herrira eta Iñigo Aritzak ere pedagogia moderno batekin ekin zion bideari. Hezkuntza ez zen jada lau pareten artean gelditu beharreko jarduera, baizik eta haurraren ekintza orotan zegoen heziketa; memoriaz ikasteko prozesuaren ordez, haurraren jakin-mina piztu beharra zegoen; eta irakaslea protagonista eta ikaslea objektu hutsa izatetik, haurra bihurtu zen hezkuntza prozesuaren subjektu eta ardatz. Horrela jolasak, kantak, irteerak nahiz eta bestelako kultur ekintzak eguneroko bihurtu ziren ikastolan. Hasiera haietan haurrei heziketa euskalduna emateaz gain, une hartan hezkuntzan pil-pilean zeuden metodoak erabiltzen ziren. Freinet, Piaget, Decroly, Montesori, Rosa Sensat. .

80ko hamarkadan materialgintza elkarlanean eta lankidetzan egiteari ekin zitzaion garapenaren pedagogia oinarri harturik. Hau da, haurraren indibidualizazioa eta sozializazioa bultzatzen zuen pedagogia eta Euskal Herriko kulturan uztartzen zen pedagogia. proiektuetan oinarrituriko metodologia globalizatua gailendu zen Iñigo Aritzan HHtik hasita, orduko OHOko 8. maila bitarte; horietako batzuk zuetako askok gogoratuko dituzue: ***Baga Biga, Saioka, Zipristin***. . . bezalako testu liburuak.

1990. urtean LOGSE legeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) izeneko ziklo berria ezarri zuen eta ikastolek egokitzapen lana egin behar izan zuten. Garai positibo eta emankorra izan zen, legea aitzaki izan baitzen ikastolen hezkuntza proiektua biziberritzeko eta indarberritzeko eta horrek DBHrako **Ostadar** proiektuaren sorkuntza ekarri zuen aldi berean LHrako **Axelko**, **Otxoko** eta **Beleko** izeneko proiektuak sortu ziren.

Ondorengo urteak ere izugarrizko urteak izan ziren: Ikastolen Elkartean **Urtxintxa** eta **Txanela** proiektuak sortu baitziren HH eta LHen hurrenez hurren.

Dena den, 90eko hamarkadan ikastolen mugimenduak beste jauzi garrantzitsua eman zuen elebitasunetik eleaniztasunera pasatuz **Eleanitz** proiektuarekin. Gainera, 2008-2009 ikasturtean **Ikasys** (euskarazko eta euskal kulturan ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa) martxan jarri zen. Horrek guztiak ere gure ikastolan aldaketak ekarri zituen. Alde batetik, ingelesaren irakaskuntza goiztiarrarekin hasi ginen, eta bestetik, ikasleak informatika gelatik mahai gainean ordenagailua izatera pasa ziren.

Azkenik, badira urte batzuk konpetentzietan oinarritutako integrazioaren pedagogian gabiltzala. DBHn 2014-15 ikasturtean eta LHen 2017-18 ekin zitzaion bide horri EKI proiektuarekin eta momentu honetan, pedagogia berri eta berritzaile hori LHn (1.,2. eta 3. maila) eta HHn ezartzen ari da KIMU eta KUKU proiektuen eskutik.

Ikastoletan eta Iñigo Aritzan argi izan dugu beti zein den gure ipar eta helburu, eta horretarako gure metodologia eta materialak garaian garaiko beharretara moldatzen eta egokitzen joan gara berezkoa izan dugun aintzindaritasun horretatik. Oraingoan gure material horiei guztiei Hizkuntzen Trataera Integralaren begirada ematea dagokigu euskaran oinarritutako eleaniztasunerantzko bidean, eta ikastoletan berezkoa den elkarlan eta koordinaziotik horri tamainako erantzuna emango diogu, materialak material.

# IÑIGO ARITZA Y LAS IKASTOLAS PIONERAS EN CREACIÓN DE MATERIALES




En el 50 aniversario de nuestra ikastola, el recorrido realizado se puede analizar de diferentes maneras. En este caso reflexionaremos sobre la elaboración de materiales utilizados por el alumnado que es nuestro eje. De hecho, en eso también fueron pioneras las ikastolas y ahora también lo son.

En 1971 fue el año de la creación de nuestra ikastola, y ésta introdujo la innovación en Euskal Herria e Iñigo Aritza comenzó su andadura con una pedagogía moderna. La educación estaba presente en toda acción del niño/a; el proceso memorizar se sustituyó por la curiosidad del niño/a; y de ser el profesor el protagonista y el alumno el mero objeto, el niño/a se convirtió en sujeto y eje del proceso educativo. Así los juegos, las canciones, las salidas y otras actividades culturales se convirtieron en algo cotidiano en la ikastola.

En la década de los 80 se impuso una metodología globalizada basada en proyectos , algunas de las cuales recordaréis: libros de texto como ***Baga Biga, Saioka, Zipristin***. . .

En 1990 la LOGSE implantó un nuevo ciclo denominado Educación Secundaria Obligatoria (ESO), cuya adaptación supuso la creación del proyecto **Ostadar** para la ESO y para EP **Axelko-Otsoko-Beleko**. Posterior, siguieron los proyectos **Urtxintxa** y **Txanela** en EI y EP respectivamente.

En la década de los 90 el movimiento de las ikastolas dio otro salto importante pasando del bilingüismo al plurilingüismo con el proyecto **Eleanitz**. Además, en el curso 2008-2009 se puso en marcha **Ikasys** (software curricular y de ocio centrado en el euskera y la cultura vasca). Todo ello supuso también cambios en nuestra ikastola.

Por último, desde hace años estamos trabajando en una pedagogía de la integración basada en competencias con el proyecto EKI y en ese momento esta nueva pedagogía se está implantando en (1°, 2° y 3°) de EP y en EI de la mano de los proyectos KIMU y KUKU.

En las ikastolas y en Iñigo Aritza siempre hemos tenido claro cuál es nuestro objetivo y líneas de trabajo. Hemos sido pioneros a lo largo de estos 50 años adaptando nuestra metodología y materiales a las necesidades de cada momento. En este momento nuestro reto es mirar estos materiales desde la perspectiva del Tratamiento Integral de las Lenguas. Desde el trabajo en equipo y en coordinación, distintivo de la ikastola daremos la respuesta que requiere el momento.









# INKLUSIOAREN BIDEAN
# HAMAIKA URRATS

Mende erdia igaro da Iñigo Aritza ikastolak herritik eta herriarentzat sorturiko hezkuntza proiektua martxan jarri zuenetik. Geroztik, komunitatearen aniztasuna aintzat hartu eta guztiontzako ikastola sortzerako bidean, lanketa eta proposamen anitzetan murgildu gara. Herrira irekia den, ezberdintasunak positiboki hartzen dituen eta guztion beharrak asetzen dituen ikastola eraiki nahi izan dugu beti, baina gaur egungo egoerara iristea ez da lan erraza izan.

Aniztasuna zentzun zabalean ulertuta (generoa, kulturartekotasuna, sozioekonomikoa...) urrats ugari eman baditugu ere, nabarmentzekoa da inklusioaren bidean, aniztasun funtzionalaren baitan buruturiko eraldaketa. Izan ere, ikastola eta berau osatzen duen komunitatea, aitzindaria izan da gure ikasle guztiei behar den erantzuna emateko ahalegin eta egitasmoetan.

Alde batetik, 2009. urtean, Lehen Hezkuntzako etapan Trantsizio Gela sortu zen aniztasun funtzionala zuten ikaslegoari erantzuna emateko eta 2017. urtean, ikasle hauek herrian, murgiltze ereduan eta bere komunitatean ikasten jarrai zezaten, inklusioari bide emateko proiektu berritzaileari hasiera eman genion Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan DOH2 unitate espezifikoa sortuz. Pasaden ikasturtean, halaber, DOH2 gelen trantsizioaren ondorio, CBU unitatea osatu zen.

Bestalde, aipatzekoa dugu, ikastolaren baitan antolatzen diren ekimenek, inklusioaren printzipioak betetze ditzaten ahalegin irmoak aurrera eraman ditugula. Honen adibide, Ikastolako azken Nafarroa Oineza dugu non “Guztiok bagara” lelopean, ikastolen jai garrantzitsuena inklusioaren irizpideen baitan ospatu zen. Horretarako, denon artean inklusioaren dekalogoa sortu eta elkarlan esanguratsuaren ondorio berau praktikara eramatea lortu genuen.




Dekalogo hau ordea, testuinguru orotan errealitate bihurtzeko, inklusioaren bidean konpromisoz jokatu eta urratsak ematen jarraitzea dagokigu. Bidea luzea den arren, irmotasunez aurrera eginen dugu, bazterketa oro ekidin eta aniztasuna positiboki irudikatzen duen gizartearen oinarriak finkatzea lortzeko.

Logure
El diseño hecho descanso
Tapizera • Gortinak • Koltxoiak

LOTERIAS IMAZ
San Juan 16
ALTSASU
948 563 466

ADMON. LOTERIAS
Nº 2
Pza. Zumalacárregui, 4
Tel. 948 - 46 71 29
ALSASUA (Navarra)

Lur
ecotienda
Urbasa 15 Alsasua - Navarra 948 467 077

MAPFRE
ALTSASU
JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
San Juan, 48 ALTSASU
T.948 563 354 / F. 948 562 151 / 686 457 048
jimazpr@mapfre.com

ARKITEKTOA
maria pilar bakaikoa
650 831 816
www.mariapilarbakaikoa.com
Isasia industrialdea A1 behea, Altsasu

marigorri
ehundenda lencería
San Juan, 2 ALTSASU
T. F. 948 562 153

# AVANZANDO HACIA LA INCLUSIÓN

Ha pasado nada más y nada menos que medio siglo desde que la ikastola Iñigo Aritza puso en marcha su proyecto educativo creado por y para el pueblo. Desde entonces, nos hemos visto inmersos en múltiples propuestas y tareas para considerar la diversidad de nuestra comunidad y construir una ikastola para todas, que no deje a nadie fuera. Siempre hemos querido construir una ikastola abierta al pueblo, que acoja positivamente las diferencias y que satisfaga las necesidades de todas. No obstante, llegar al punto en el que actualmente nos encontramos, no ha sido tarea fácil.




SER DIFERENTE NO ES UN PROBLEMA, EL PROBLEMA ES SER TRATADO DIFERENTE.

Si bien es cierto que hemos dado grandes pasos en la atención a la diversidad en su amplio sentido (diversidad de género, cultural, socioeconómica...), cabe destacar los pasos abordados en el tratamiento de la diversidad funcional. Y es que, nuestra ikastola y la comunidad que la componemos, ha sido pionera a la hora de dar respuesta a las necesidades específicas de todo el alumnado.

Por un lado, en el año 2009, en la etapa de Educación Primaria, abrimos el Aula de Transición con el fin de atender las necesidades de alumnado con diversidad funcional. Posteriormente, en 2017, logramos que estos, pudiesen continuar sus estudios en su pueblo, en modelo inmersión y comunidad, dando lugar a la apertura del aula de Unidad Especial DOH2 con un proyecto innovador para atender a la diversidad desde un enfoque plenamente inclusivo. El curso pasado, dado a la transición del aula DOH2, se configuró la unidad CBU.

Por otro lado, resultan destacables las firmes intencionalidades y acciones dadas para que las actividades organizadas bajo el paraguas de la ikastola cumplan los principios de inclusión. Un claro ejemplo de ello fue el último Nafarroa Oinez que bajo el lema "Somos todas" logramos celebrar la mayor fiesta de las ikastolas bajo los criterios definidos. Para ello, diseñamos entre todas un decálogo de la inclusividad y mediante el constante trabajo en equipo logramos llevarlo a la práctica.

No obstante, para que el mencionado decálogo pueda llevarse a la práctica en los diversos contextos, resulta necesario seguir el largo camino hacia la inclusión actuando con compromiso y dando pequeños pasos. Por mucho que el camino sea largo, seguiremos trabajando con firmeza para poder afianzar las bases de una sociedad que rechaza la exclusión y valora positivamente la diversidad de las personas.

montte
www.montte.com


peluquería
nueva imagen
ileapaindegia
San Juan, 54 ALTSASU
948 467 074

Oin Klinika
Clínica del Pie
Nerea Argomaniz Saldaña
Podóloga [Col. 65]
Zelandi, 12 - Bajo 31800 Altsasu
[frente al Centro de Salud]
691 066 504

PAKO
HARATEGIA Olatzagutia 948 562 858

Sakanaoptika
OPTIKA • KONTAKTOLOGIA • AUDIOMETRIA
www.optikasakana.com
948 563 124 • Altsasu • Intxostia zeharbidea 10

Larrezabal Eco
IDIAZABAL
Altsasu
PATXI AMILLANO
607 271 163

ITURGINTZA - BEROGINTZA ETA GAS
FONTANERIA - CALEFACCIÓN Y GAS
Amaia, 6-4 ezker
ALTSASU
T. 659 286 344
PEIO

# ATZOTIK DA GAUR; GAURTIK DA BIHAR

IÑIGO ARITZA IKASTOLA

## Ikasturte berezi baten hasiera: Iñigo Aritza ikastolak 50 urte



Lehenengo belaunaldietako irakasle eta ikasle batzuk; guztiak gogoan zaituztegu.



Hasierako antzerkien ondoren.

### IKASTOLEN MUGIMENDUA

Ikastolen mugimenduak 60ko hamarkadan ekin zion bideari. Euskal Herrian zehar, beste hezkuntza eredu batekin amesten zuten hainbat pertsona elkartu eta aurrera eraman zuten. Momentuko beharrei eta gizarteari erantzun nahian, herritik eta herriarentzat sortu ziren ikastolak. Etorkizuneko gizartea nolakoa nahi zuten irudikatu zuten: euskara eta euskal kultura maitatzen zuena. Eta kooperatibismoaren eskutik, murgiltze eredua sustatu zuten.

### IÑIGO ARITZA IKASTOLAREN IBILBIDEA

Iñigo Aritza Ikastola ere mende erdia darama bide-urratzaile zeregin horretan haziak ereiten; lehengo, Olaztin, ondoren Altsasu, Urdiain eta Ziordin. Lehenengo urte haietan haur gutxi eta baliabide gutxirekin, bai, baina gogo eta grin handia.

Bide horretan askotan behar izan da inplikazioa eta ilusioa hau aurrera eramateko: ikasleek hezkuntza bidea jorratzeko beharrezko baliabideak bilatzea eta hezkuntza ereduaren ofizialtasuna borrokatzea. Eta bide honetan, hiru Nafarroa Oinez ere ospatu dira komunitate osoaren elkarlanari esker aurrera atera direnak, komunitateko ardatz guztiek norantza berdinean arraun egiten.

Hasierako urte haietan berrogei bat baginen, gaur egun, 300 haur eta 200 familia inguruk osatzen dugu komunitatea, duela bost hamarkada gutxi batzuk hasi zuten bidea Burundan errotu denaren seinale. Makina bat erronka izan dira bidean, eta datozenei aurre egingo zaie. Horiei guztiei, orain arte bezala, Ikastolako ildo eta helburu nagusiak ardatz harturik eta denon arteko elkarlanean, erantzuna emango zaie.

### 50. URTEURRENA

Honela, aurtengo ikasturtean 50. urteurrena ospatzen dugu eta Ikastolak beti egin izan duen bezala, herriari eskaini nahi dizkiogu gure ikuspegi eta balioak, euskara eta euskal kultura ardatz eta helburu izanik.

Lehenengo ospakizuna urriaren 23an izan genuen Altsasuko Iortia Kulturgunena, Eñaut Elorrietak eskainitako emanaldiarekin. Ikasturtean zehar, Iñigo Aritza Ikastolak bereziki indarra jarri nahi du haur eta familiei zuzendutako ekintzetan eta hori horrela, hainbat ekintza aurreikusten dira ikastola osatzen duten herri guztietan (hitzaldiak, ipuin-kontalariak eta haurrentzako jokoak) ospakizunei bukaera emanez ikastolako egunarekin.

Herritar guztiak gure ospakizunetan parte hartzera eta gurekin gozatzera animatzen ditugu. Eta bide batez, ikastolako komunitatea osatzen dugun familia, familia-ohi, langile, langile-ohi, ikasle eta ikasle ohiei, MILA ZORION!!!, gu baikara iturri zaharreko ur berria!



# DEL AYER, HOY. DEL HOY; EL MAÑANA

## El comienzo de un curso especial: 50 aniversario de Iñigo Aritza Ikastola


*Hasiera hartan etxarriarrak gurera etortzen zirenekoa*

### EL MOVIMIENTO DE LAS IKASTOLAS

El movimiento de las Ikastolas comenzó su andadura en los 60 cuando por toda Euskal Herria se unieron personas que soñaban con otro modelo educativo. Para responder a las necesidades y la sociedad del momento, las ikastolas surgieron del pueblo, para el pueblo. Imaginaron cómo querían que fuera la sociedad del futuro: una que amara el Euskara y la cultura vasca. Y de la mano del cooperativismo, dieron paso al modelo de inmersión.

### EL RECORRIDO DE IÑIGO ARITZA IKASTOLA

Iñigo Aritza Ikastola también lleva medio siglo sembrando ese camino, primero en Olazti y después en Altsasu, Urdiain y Ziordi. 50 años educando en un modelo de inmersión basado en el Euskara y la cultura vasca. Durante aquellos primeros años, comenzamos a trabajar con poco alumnado y con pocos recursos, pero con mucho deseo y pasión.

Muchas veces ha sido necesaria la implicación y la ilusión de todos en ese camino para llevar a cabo este proyecto: buscar los recursos necesarios para que nuestro alumnado pueda seguir su camino educativo y luchar por la oficialidad del modelo educativo, entre otros. Y en este trayecto, se han celebrado tres Nafarroa Oinez que han salido adelante gracias a la colaboración de toda nuestra comunidad.

En sus inicios, la Ikastola contaba con unos 40 alumnos llegando hoy a ser unos 300 (y 200 familias), señal de lo arraigado que está en Burunda el camino que unos pocos comenzaron hace 5 décadas. Hemos tenido muchos retos en el camino, y todavía nos quedan. Pero a todos ellos, como hasta ahora, sabremos darles respuesta tomando como ejes centrales las líneas y los objetivos principales de la Ikastola, así como el trabajo en equipo.

### 50 ANIVERSARIO

Este curso académico celebramos el 50 aniversario y como siempre, queremos ofrecer a la sociedad nuestra visión y nuestros valores, teniendo como eje y como principio el Euskara y la cultura vasca.

La primera celebración fue el 23 de octubre en el centro cultural Iortia de Altsasu, un concierto que ofreció Eñaut Elorrieta de la mano de la Ikastola. A lo largo del curso, Iñigo Aritza Ikastola quiere poner especial énfasis en la oferta para los/as niños/as y las familias es por ello que se prevé ofertar distintas actividades en todos los pueblos que forman parte de la Ikastola (charlas, cuentacuentos y juegos infantiles), finalizando las celebraciones con el día de la Ikastola.

Invitamos a todo el pueblo a participar en nuestra celebración y a disfrutar con nosotros no sin antes felicitar a todos los que formamos y hemos formado esta comunidad: familias, trabajadores/as y alumnado. ZORIONAK!

Ropa de niños y lencería
TxikiTxo
Feral, 2 ALSASUA
TXIKITXO1@terra.es
948 46 73 08

AUTOVIMAUTO S.A.
Neumáticos
Revisión pre itv
Tubos de escape
Mecánica multimarca
Chapa y pintura
Tel.Fax: 948 468 862
autovimauto@hotmail.com
Pol. Ibarrea Pab. Nº4 • Alsasua

Urtzi BAR
ALTSASU
Gaueko GIRO onena!

Urbasa
Taberna - Jatetxea
T.948 468 212
M.680 746 249
barurbasa@gmail.com
www.barurbasa.com
C/Santa Maria, 40
31809 Ziordia (Navarra)

Vitalox
UHARTE ARAKIL
626 60 60 41

# HONELA SARTU, HONELA ATERA





Bizitza autobus bidaia bat dela esan dezakegu. Hasieran, etxekoek bete zituzten gure aulkiak. Herriz herri, gure bizitzako bidaia egiten ari ginela, lehen geldialdia iritxi zitzaigun. Gutako batzuk, Txiokan elkartu ginen eta beste batzuk, Olaztiko ikastolan. Hasieran, zaila izan zen, urduri geunden, baina, gutxinaka, ezezagunak ginen horiek lagun bihurtu ginen eta ikastolara negarrez sartzen ginenok, irribarrez ateratzen ginen.

Bi geltokiak herri banatan aurkitzen baziren ere, bi ikastolen arteko harremana estua zen. Hainbat topagune egiten genituen elkarrekin, adibidez, Txiokako jangelakoa. Hala ere, gabonetako jaialdiak izan ziren gehien elkartu gintuzten ekintzak. Jon gure artista!

Bidaian aurrera gindoazela, hurrengo geltokira iritsi ginen: Txiokara. Bertan, denok elkarrekin LH-ri hasiera eman genion, Edurne autobus gidari genuela. Lehen egunak bihurgunez beterikoak izan ziren, baina, Uitziko txangoari esker, gure arteko harremanak estutu ziren.

Txiokako gure etapari pena agur esan ondoren, Iñigo Aritzan egin genuen hurrengo geldialdia. Mendiko gure ikastolan! Hasierako bi urteak, lasaiak izan ziren Kizkitza eta Idoiarekin. Ai, gure txabolak!

Handitzen handitzen hasi ginen, handitzen, eta LH-ko azken geltokira iritsi ginen. Bakartxo bai artista! Urte hauek guztiak, autobus bidaia txikiz beteta egon ziren: Zuhatza, Izaba eta, noski, gure bihurrikeriez!

Eta, noski, LH amaitu eta. . . Garai hartan helduentzat iruditzen zitzaigun geltokira iritsi ginen. DBH-ra! Lehenengo bi urteak Asierrekin batera pasa genituen. Azterketez beteriko hilabeteak izaten hasi ginen, Mikelen *That Quiz*-ez ahaztu gabe. Geltoki honetan ere, gure esentzia presente izan genuen! Eta, bat-batean, KONFINAMENDUA iritsi zitzaigun. Biziak hankaz gora jarri zitzaizkigun, pentsa autobusa garajean sartu eta guztiok etxeratu gintuela. Baina, gure bidaia modu birtualean aurrera zihoan, gelditu gabe.

Hurrengo ikasturtea arraro xamarra izan zen. Amaiak Asierri gidariaren papera aldatu zion eta berrogeialdiaren ondorioz, areto nagusia bilakatu zen gure gela. A zer suertea! Gainera, ikasle berezi bat batu zitzaigun autobusera! Azkar pasa zen DBH3, hainbat konfinamendu, online klase eta abenturaz beteta. Urbasara ere egin genuen bisita!

Eta azkenik, begiak itxi eta ireki orduko, ikastolako gure azken geltokira iritsi gara! Pentsatzeak barruak mugitzen dizkigu. Ikastolak egin gaitu gaur garena, ikastolak irakatsi dizkigu hainbat ikasgai; ikastolak eman dizkigu hainbat momentu eta ikastolak oparitu dizkigu garrantzitsuak diren eta betirako nahi ditugun lagunak. Azken geltokia dela diote, baina, ikastolan sortutakoa inoiz ere ez da galduko!

**DBH4. mailako ikasleak**



674 988 390 · 948 563 970
Lezea · Altsasu

AREZPE
TRANSPORTES PROPIOS
TLF. 948 46 73 22 - 948 56 31 55 - 31800 ALTSASU (Nafarroa)
ARIDOS, GRAVAS, MORTEROS Y HORMIGON
CONSTRUCCION y JARDINERIA















GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.





































































OINEZ




COPRECI, MUNDUKO LIDERRAK ETXETRESNEN
OSAGAIEN FABRIKAZIOAN

www.copreci.com

COPRECI - ALTSASUKO S.COOP.